

Txakurren eta Andeetako azerien arteko parasitoen transmisioa ulertu nahian, Txileko paisaia antropikoan

Cevidanes A^{1,2,*}, Ulloa C³, Di Cataldo S², Latrofa MS⁴, Gonzalez-Acuña D^{† 5}, Otranto D^{4,6}, Javier Millán^{7,8,9}

1- Animalia Osasun saila. NEIKER - Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea. Basque Research and Technology Alliance (BRTA). Derio, EH. 2- Programa de Doctorado en Medicina de la Conservación, Facultad de Ciencias de la Vida, Universidad Andrés Bello, Santiago, Chile. 3- Facultad de Ciencias Veterinarias y Pecuarias, Universidad de Chile, Santiago, Chile. 4- Department of Veterinary Medicine, University of Bari "Aldo Moro", Valenzano, Bari, Italy. 5- Laboratorio de Parásitos y Enfermedades en Fauna Silvestre, Facultad de Ciencias Veterinarias, Universidad de Concepción, Chillán, Chile. 6- Department of Pathobiology, Faculty of Veterinary Science, Bu-Ali Sina University, Felestin Sq., Hamedan, Iran. 7- Facultad de Ciencias de la Vida, Universidad Andrés Bello, Santiago, Chile. 8- Instituto Agroalimentario de Aragón-IA2 (Universidad de Zaragoza-CITA), Zaragoza, Spain. 9-Fundación ARAID, Zaragoza, Spain.

*aitorcevi@gmail.com



Patogeno eta parásito gehienak ostalari-espezie desberdinak infektatzeko gai dira. Bizkarroi batzuk, etxe-abere ugarien artean zirkulatzen dute, eta, noizean behin, espezie "hesia" gurutzatu eta urriagoak diren espezie basatiak kutsa ditzakete. Txile erdialdean, Santiago hiriburuaren inguruaren, txakurrek (*Canis lupus familiaris*), eta Andeetako azeriek (*Lycalopex culpaeus*) antropizatutako landa-inguruneak partekatzen dituzte.

Ikerketa honen helburua **txakur** eta **Andeetako azeri** populazioetan **kaparren** (Acari: Ixodidae) eta **arkakusoen** (Siphonaptera: Pulicidae) ekologia deskribatzea da transmisioa gertatzen den ala ez zehazteko.




NON

Txileko Santiago eskualde metropolitarreko landa eremuetan



NOLA

- 67 azeri eta 111 txakur miatu ziren.
- Kapar eta arkakusoak morfológikoki identifikatu ziren.
- Parasito batzuen karakterizazio molekularra egin zen.




EMAIZZAK



KAPARRAK

Rhipicephalus sanguineus (Rs)




Egituraketa genetikorik ez eta sekuentzia partekatuak

Amblyomma tigrinum (At)



ARKAKUSOAK

Ctenocephalides spp (Ct)



Egituraketa genetikorik ez eta sekuentzia partekatuak




Pulex sp (Pu)



ONDORIOAK

Txakurrek azerientzako mantentze edo gordailu bezala jokatzen dute *R. sanguineus* s.l. eta *Ctenocephalides* spp. parasitoen kasuan eta ektoparasito hauen transmisioak txakurretatik azerietara gertatzen direla.

Azeriak, aldiz, *A. tigrinum* eta *P. irritans* parasitoen ostalari naturalak dirudite, eta libreki mugitzen diren txakurrak parasito-espezie hauekin noizbehinka infekta daitezke.



Universidad
Andrés Bello

Conectar · Innovar · Liderar

Eskerrak

Lan hau Daniel González-Acuñari eskainita dago. Ikerketa hau Fondecyt 1161593 finantzatu du. Eskerrak eman nahi dizkiegu Irene Sacristán, Carla Tagini, Nina Rygh eta Andrea D. Chiriferi; Unidad de Rehabilitación de Fauna Silvestre UNAB / Buin Zoo eta Servicio Agrícola Ganadero-ko Fauna Zerbitzuko Katherine Daza, Carlos José Tellería eta Maximiliano Larraín-en (Oficina Agrícola de Colina) laginketan laguntzeagatik. Artikulu hau Aitor Cevidanes-en doktoreta-tesiko kapitulu bat da eta *Medical and Veterinary Entomology* aldizkarian argitaratu berri da. <https://doi.org/10.1111/mve.12515>



IKER
GAZTE 2021
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ